



## MEMORIA

### SANTA ANASTASIA HERRIKO JAIETAN TXOSNAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA LANTZEA.

ARAU ONARTZEKO PROZEDURAREN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege-proiektuak edo lege-aurreproiektuak eta erregelamenduak egin aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta elkarte adierazgarrienen iritzia jasotzeko. Hori betetzeko, aldez aurreko kontsulta egin behar da Santa Anastasiako jaietan txosnak jartzea arautzen duen udal-ordenantza egiteko prozeduran.

Arauaren aurrekariak	Arau honek ez du aurrekaririk..  Araudi hori Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritako udal-eskumenetatik eratorritzen da, honako gai hauei dagokienez: merkataritza ibiltariaren antolamendua eta kudeaketa, osasun publikoaren sustapena, kudeaketa eta defentsa, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen antolamendua, kudeaketa eta defentsa.. Era berean, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legea aplikatzearen ondorio da.
Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak	Ordenantza honen xedea da, udal eskumenen esparruan, herriko jaietan txosnak jartzeari buruzko araudi autonomikoan ezarritakoa osatu eta arautzea, zarata eta garbitasunari dagokionez eragozpenak sor ditzaketen bide publikoa okupatzen duten instalazioak baitira.
Onartzeko beharra eta egokitasuna	Orain arte ez dago aldi baterako instalazio horien instalazioa eta funtzionamendua erregulatzeko araudi propiorik.
Arauaren helburuak	Ordenantza berri honen bitartez, Urretxuko Udalak Santa Anastasia herriko jaietan txosnen instalazioa arautu eta antolatu nahi du, eskubide eta betebeharren eta baldintzen erregulazio zehatza ezarriz.. Hori guztia araudi argi eta zehatz bat izateko, udalerrian egoitza duten eta



Urretxuko udala



	txosnen instalazioan interesa duten kultura-, kirol- edo gizarte-arloko erakunde, talde edo elkarte guztiek jakin dezaten.
Ordezko irtenbide arautzaile eta ez- arautzaile posibleak.	Ordezko irtenbidea ordenantzarik ez egitea izango litzateke. Hala ere, Santa Anastasiako jaietan txosnak jartzeko baimena emateko prozeduraren kalitatea eta argitasuna hobetu nahi denez, komenigarria da ordenantza hori egitea eta modu uniformean eta eraginkorrean aplikatzen dela ziurtatzea.